



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2020ko urtarrilaren 21ekoa, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia ebazten duena.

Hezkuntza sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bidez, azaroaren 14ko 217 zbk. EHAA, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen. Agindu horren 10. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak, guztira 174.800 euro.

Bigarrena.- 12. artikulua zehaztutakoaren arabera, II. eranskinean ordezkoen zerrenda ezartzea, hauek hutsuneak gertatuz gero beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean jasota agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 21



ADOLFO MORAIS EZQUERRO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA